



<p>BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA MUSKIZKO UDALAREN ARTEKO DIRULAGUNTZA HITZARMENA, BURDINBURDINMENDIKO BIDE BERDEKO MEATZARITZAKO ONDARE INDUSTRIALARI BURUZKO SARRERAK, SARBIDEAK ETA TARTEKO MUGARRIAK SEINALEZTATZEKO ETA INFORMAZIO-PANELAK JARTZEKO DAGOEN PROIEKTUA EZARTZEKO, MUGIKORTASUN IRAUNKORRA SUSTATZEKO ETA ERABILTZAILEARENTZAT IRISGARRIAGOA IZAN DADIN.</p>	<p>CONVENIO SUBVENCIONAL ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y EL AYUNTAMIENTO DE MUSKIZ CON EL FIN DE IMPLANTAR EL PROYECTO EXISTENTE DE SEÑALIZACIÓN DE ENTRADAS, ACCESOS E HITOS INTERMEDIOS Y DE PANELES INFORMATIVOS SOBRE PATRIMONIO INDUSTRIAL MINERO EN VÍA VERDE MONTES DE HIERRO-BURDINMENDI, CON EL FIN DE FOMENTAR LA MOVILIDAD SOSTENIBLE HACIENDOLA MÁS ACCESIBLE A LA PERSONA USUARIA.</p>
<p>BILDU DIRA</p>	<p>SE REÚNEN</p>
<p>Alde batetik, Sonia Perez Ezquerria, Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Saileko foru diputatua, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta hura ordezkatzuz (IFZ: P4800000D).</p>	<p>De una parte, D^a. Sonia Perez Ezquerria, Diputada Foral del Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo, actuando en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia (NIF: P4800000D)</p>
<p>Eta, bestetik, Eduardo Briones Lerchundi, Muskizko alkatea, Muskizko Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz (IFZ: P4808300J).</p>	<p>Y, de otra parte, Eduardo Briones Lerchundi, alcalde de Muskiz, actuando en nombre y representación del ayuntamiento de Muskiz, (CIF P4808300J).</p>
<p>ESKU HARTZEN DUTE</p>	<p>INTERVIENEN</p>
<p>Lehenengoak, Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Saileko foru diputatu gisa, eta ekitaldi honetarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta haren ordezkari gisa. Horretarako, Foru Gobernuaren Kontseiluak</p>	<p>La primera, como Diputada Foral del Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo, y para el presente acto en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia, para lo cual se encuentra previamente facultada</p>

<p>ahalmena du aldez aurretik, 2024ko uztailaren 18an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez.</p>	<p>por acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno Foral en la sesión celebrada el día 18 de julio de 2024.</p>
<p>Bigarrenak, halaber, aipatutako karguagatik, Muskizko Udalaren izenean eta hura ordezkatu</p>	<p>El segundo, también por razón de su expresado cargo, en nombre y representación del Ayuntamiento de Muskiz.</p>
<p>Bi alderdiek, esku hartzen dutenez, elkarri aitortzen diote dirulaguntzetarako hitzarmen hau sinatzeko behar den gaitasun juridikoa.</p>	<p>Ambas partes, según intervienen, se reconocen entre sí la capacidad jurídica necesaria para la suscripción del presente Convenio Subvencional y a tal efecto.</p>
<p style="text-align: center;">ADIERAZTEN DUTE</p> <p>I.- Azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, autonomia erkidegoko erakunde erkideen eta bertako lurralde historikoetako foru erakundeen arteko harremani buruzkoak, 10. artikuluan ezartzen duenez, errepideko garraio mekanikoen arloko legegintza, arauen bidezko garapena, goi-ikuskaritza, plangintza eta koordinazioa autonomia erkidegoko erakunde erkideei dagozkie. Lurralde historikoek, beren mugartean, eta indarrean dauden Estatuarekiko itunen arabera, Bizkaia orain dituen ahalmenak eurak eta nolako berdinez erabiliko dituzte.</p> <p>II.- Bizkaiko Foru Aldundiak foru eskumenak bere gain hartzeaz gain, araubide erkideko aldundiek garatzen dituzten eskumenak ere bere gain hartzen ditu, eta horien eginkizun nagusien artean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen</p>	<p style="text-align: center;">EXPONEN</p> <p>I.- La Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, preceptúa en su artículo 10 que corresponden a las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma las competencias de legislación, desarrollo normativo, alta inspección, planificación y coordinación en materia de transportes mecánicos por carretera ejerciendo los Territorios Históricos las mismas facultades y con el mismo carácter que en el presente ostenta Bizkaia, dentro de su territorio, de acuerdo con los convenios vigentes con el Estado.</p> <p>II.- La Diputación de Bizkaia además de asumir las competencias forales asume las competencias que desarrollan las Diputaciones de régimen común, entre cuyo cometido principal y de conformidad con el artículo 36 dedicado a</p>

apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36. artikulua arabera, honako oinarritzko hauek daude Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako lurralde historikoek bakoitzari dagokion lurralde-eremuan aplikatze aldera: prestazio osoa eta egokia bermatzeko udal-zerbitzuak elkarren artean koordinatzea, udalaz gaindiko eta, bidezkoa bada, eskualdeaz gaindiko zerbitzu publikoak ematea eta udalerrietako zerbitzuak euren lurralde eremuan bateratuta eman daitezen sustatzea eta, hala badagokio, koordinatzea.

III.- Bestalde, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua arabera, udalek auzokide guztien komunitatearen beharrak eta nahiak betetzen lagunduko duten jarduerak sustatu eta zerbitzu publikoak eman ditzakete, betiere euren eskumenen esparruan, eta horien artean sartzen dira "Trafikoa, ibilgailuen aparkalekua eta mugikortasuna, eta hiriko garraio kolektiboa".

Udalerriek eskumen propioak dituzten eremu material hori bera aurreikusita dago Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.32 artikuluan, honako baldintza hauetan, "*Pertsonen, ibilgailuen, motordunak izan edo ez izan, animalien eta pertsonen eta salgaien garraioaren mugikortasunaren eta irisgarritasunaren antolamendua, kudeaketa, diziiplina eta sustapena*

regular las competencias de la Provincia de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, de carácter básico y aplicable a los Territorios Históricos de Bizkaia, Gipuzkoa y Araba/Álava, se encuentra tanto la coordinación de los servicios municipales entre sí para la garantía de la prestación integral y adecuada, como la prestación de servicios públicos de carácter supramunicipal y, en su caso, supracomarcal, y el fomento o, en su caso, coordinación de la prestación unificada de servicios de los municipios de su respectivo ámbito territorial.

III.- Por su parte los municipios, por aplicación de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, la cual establece en su artículo 25 las competencias de carácter municipal, dispone que estos pueden promover actividades y prestar los servicios públicos que contribuyan a satisfacer las necesidades y aspiraciones de la comunidad vecinal, siempre en el ámbito de sus competencias, entre las que se incluyen como propias "Tráfico, estacionamiento de vehículos y movilidad, y Transporte colectivo urbano".

Este mismo ámbito material sobre el cual ostentan competencias propias los municipios también está previsto en el artículo 17.1.32 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, en los siguientes términos "*Ordenación, gestión, disciplina y promoción en vías urbanas de su titularidad de la movilidad y accesibilidad de personas, vehículos, sean o no a*

beren titulartasuneko hiri-bideetan. Horretarako, beharrezkotzat jotzen diren baliabide materialak, teknikoak eta giza baliabideak finkatu ahal izango dituzte”.

IV.- Ekonomia Jasangarriari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legeak III. tituluko III. kapitulu mugikortasun jasangarria arautzen du, eta administrazioei agintzen die, euren eskumenen esparruan, mugikortasun jasangarriko politikak sustatzeko. Politika horiek garraio zerbitzu berriak ezartzeko printzipioa errespetatu behar dute, eta, horretarako, inbertsio-kostuekin eta mantentze-kostuekin bat datorren eskaera-bolumena izan behar dute. Edozelan ere, kontuan hartu behar dira, batetik, behar bezalako kalitatea, prezioa, segurtasuna duten aukerako moduak eta, bestetik, ingurumen-ebaluazioaren emaitzak.

Arau beraren 100. artikulua mugikortasun jasangarriko politikaren helburuak ezartzen ditu, eta helburu hauek izan beharko ditu:

1. Hiri-ingurumena eta herritarren osasuna eta segurtasuna hobetzen laguntzea, bai eta ekonomiaren eraginkortasuna ere, natura-baliabideen erabilera arrazionalagoari esker.
2. Hiri-garapeneko, garapen ekonomikoko eta mugikortasuneko politikak integratzea, ohiko joan-etorriak minimizatzeko moduan, eta oinarritzko zerbitzuetarako irisgarritasun eraginkorra, efizientea eta segurua erraztea,

motor, y animales, y del transporte de personas y mercancías, para lo que podrán fijar los medios materiales, técnicos y humanos que se consideren necesario”.

IV.- La Ley 2/2011, de 4 de marzo, de Economía Sostenible reserva el Capítulo III del Título III a la movilidad sostenible, estableciendo un mandato a las Administraciones, en el ámbito de sus competencias, para la promoción de políticas de movilidad sostenible, que respeten principios como el del establecimiento de nuevos servicios de transporte, supeditado a la existencia de un volumen de demanda acorde con los costes de inversión y mantenimiento, teniendo en cuenta, en todo caso, la existencia de modos alternativos de la debida calidad, precio, seguridad, así como los resultados de su evaluación ambiental.

El artículo 100 de la misma norma establece los objetivos de la política de movilidad sostenible, que deberá perseguir:

1. Contribuir a la mejora del medio ambiente urbano y la salud y seguridad de los ciudadanos y a la eficiencia de la economía gracias a un uso más racional de los recursos naturales.
2. Integar las políticas de desarrollo urbano, económico, y de movilidad de modo que se minimicen los desplazamientos habituales y facilitar la accesibilidad eficaz, eficiente y segura a los servicios básicos con el mínimo



<p>betiere ingurumen-inpaktu txikienarekin.</p> <p>3. Energia-kontsumoaren murrizketa eta energia-eraginkortasunaren hobekuntza sustatzea. Horretarako, eskaria kudeatzeko politikak hartuko dira kontuan.</p> <p>4. Gizartearen, ekonomiaren, ingurumenaren eta energiaren aldetik kostu txikiena duten garraioak sustatzea, bai pertsonentzat, bai salgaiarentzat, eta garraio publiko kolektiboaren eta motorizatu gabeko beste garraioak batzuen erabilera sustatzea.</p> <p>5. Garraioak modalitatea eta intermodalitatea sustatzea, ibilgailu pribatuarekiko bestelako garraioak eta sareak kontuan hartuta.</p>	<p>impacto ambiental.</p> <p>3. Promover la disminución del consumo de energía y la mejora de la eficiencia energética, para lo que se tendrán en cuenta políticas de gestión de la demanda.</p> <p>4. Fomentar los medios de transporte de menor coste social, económico, ambiental y energético, tanto para personas como para mercancías, así como el uso de los transportes público y colectivo y otros modos no motorizados.</p> <p>5. Fomentar la modalidad e intermodalidad de los diferentes medios de transporte, considerando el conjunto de redes y modos de transporte que faciliten el desarrollo de modos alternativos al vehículo privado.</p>
--	---

<p>V.- Era berean, Euskadiko Mugikortasun Iraunkorrari buruzko azaroaren 9ko 11/2023 Legeak eta Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legeak ingurumena eta herritarren segurtasuna eta osasuna hobetzea, kutsadura atmosferikoa eta akustikoa, energia-kontsumoa eta klima-aldaketak eragindako ondorioak murriztea helburu gisa ezartzen dute; horretarako, mugikortasun jasangarria bultzatzea estrategia nagusietako bat da.</p>	<p>V.- Asimismo, la Ley 11/2023, de 9 de noviembre, de movilidad sostenible de Euskadi y la Ley 1/2024, de 8 de febrero, de Transición Energética y Cambio Climático, establecen como objetivo la mejora del medio ambiente y la seguridad y salud de la ciudadanía mediante la reducción de la contaminación atmosférica y acústica, el consumo de energía, así como los efectos derivados del cambio climático, para lo cual el impulso de la movilidad sostenible es una de las principales estrategias.</p>
<p>VI.- Burdinmendi Bide Berdea Bizkaiko ibilbide garrantzitsuenetako bat da, bai ibilbidearen hedaduragatik, bai oinez zein bizikletaz egiten den erabileragatik, eta hainbat kontagailurekin monitorizatzen da. Enkarterriak eskualdean dago, Bizkaiko mendebaldean, burdin eta beste metal batzuen meatze ugariko eremuan. Antzina, trenbidearen trazadura ateratako materiala Bizkaiko kostaldeko portuetara eramateko erabiltzen zen. Bide berde bihurtutako zatiak 38,890 kilometro ditu guztira, eta Traslaviñako geltokitik Kobaronera hedatzen da, Itsaslur Bide Berdea hasten den tokira.</p>	<p>VI.- La Vía Verde de Montes de Hierro-Burdinmendi es una de las rutas más importantes de Bizkaia, tanto por la extensión de su recorrido como por el uso que se hace de la misma tanto a pie como en bicicleta, siendo éste monitorizado con varios contadores. Esta se sitúa en la comarca de Las Encartaciones, en la parte occidental de Bizkaia, zona con abundantes minas de hierro y otros metales. Antiguamente el trazado ferroviario se empleaba para trasladar el material extraído a los puertos de la costa de Bizkaia. El tramo convertido a vía verde suma un total de 38,890 kilómetros, que se extienden desde la Estación de Traslaviña hasta Kobaron, donde da comienzo la Vía Verde de Itsaslur.</p>

<p>Trazadura hainbat udalerritatik igarotzen denez, eta Bide Berdearen zati bat hainbat ibilbideren parte denez, ibilbidean zehar jarritako mugarriak ez dira heterogeneoak, bai estetikari dagokionez, bai kokapenari dagokionez, eta erabiltzailea desorientatzea eragin dezake.</p> <p>Horren ondorioz, eta seinale homogeneousak ezartze aldera, eta erabiltzailea Burdinmendi Bide Berdearen ibilbide osoan zehar behar bezala bidera dadin, "Enkarterrialde" Landa Garapeneko Elkarateak proiektu bat idatzi zuen 2022an, bide berdea bera seinaleztatzeko eskuliburuan adierazitakoarekin bat zetorrena.</p> <p>Proiektu horretan Burdinmendi bide berdearen tartek jasotzen ziren, Muskizko tokiko erakundearen lurzorutik 6,491 km igaroz.</p> <p>Proiektuaren garapenak seinaleen definizioaren hiru alderdi bereizgarriak barne hartzen ditu: seinaleen edukia, kokapena eta espezifikazioak.</p> <p>Proiektu horretan, Muskizko udalerrian honako jarduketak jasotzen ziren, industria- eta natura-ondareari buruzko seinaleen eta informazio-panelen kopuruari dagokionez:</p>	<p>Dado que la traza discurre por diferentes municipios y parte de la Vía Verde forma parte de diversos itinerarios los hitos dispuestos a lo largo del itinerario no son heterogéneos, tanto en lo que respecta a su estética como a su ubicación, pudiendo provocar la desorientación de la persona usuaria.</p> <p>Como consecuencia de ello y al objeto de establecer una señalización homogénea y que sirva para que la persona usuaria se oriente adecuadamente a lo largo de todo el recorrido de la Vía Verde Montes de Hierro- Burdinmendi, en 2022 la Asociación de Desarrollo Rural "Enkarterrialde" redactó un proyecto acorde a lo indicado en el Manual de Señalización de la propia vía verde redactada de forma conjunta.</p> <p>En dicho proyecto se recogían los tramos de la vía verde Montes de Hierro-Burdinmendi discurrendo por suelo del ente local de Muskiz un total de 6,491 Km.</p> <p>El desarrollo del proyecto abarca los tres aspectos característicos de la definición de las señales: el contenido, la ubicación y las especificaciones de las señales, propiamente dichas.</p> <p>En dicho proyecto, se recogían las siguientes actuaciones en el término municipal de Muskiz en cuanto al número de señales y de paneles informativos sobre patrimonio industrial y natural:</p>
---	--

<ul style="list-style-type: none"> • Seinaleak: 11 • Informazio-panelak: 3 	<ul style="list-style-type: none"> • Señales: 11 • Paneles informativos: 3
<p>VII.- Bi erakundeen helburua da, proiektuan adierazitako seinaleen bidez, bidearen erabiltzaileari informazioa ematea, tipografia, kolore eta modu eraginkorrean formalizatutako mezuen bidez, joan-etorrien segurtasuna eta erosotasuna lortzen laguntzeko, erabiltzailea lurralde eta udalerrri jakin batean kokatuz, mugikortasun iraunkorra bultzatuz, erabiltzailearentzat eskuragarriagoa eginez.</p>	<p>VII.- Que ambas instituciones tienen como objetivo mediante la señalización indicada en el proyecto, facilitar información a la persona usuaria de la vía, a través de mensajes formalizados mediante una tipografía, color y forma eficaz, que contribuyan a la seguridad y a la comodidad de los desplazamientos, situando a la persona usuaria en el territorio y en el municipio concreto, impulsando así la movilidad sostenible haciéndola más accesible a la persona usuaria.</p>
<p>VIII.- Proposatutako helburua lortzeko, erakundeen arteko lankidetzeta da herritarrei modu arin eta zehatzean zerbitzua emateko tresnarik egokiena.</p>	<p>VIII.- Que, para lograr el objetivo propuesto, la colaboración interinstitucional es la herramienta más adecuada de dar servicio a la ciudadanía de una manera ágil y concreta.</p>
<p>IX.- Mugikortasun iraunkorra sustatzeko esparru estrategiko partekatu honetan, hitzarmen bidez dirulaguntza bat bideratu behar da Burdina Mendiak - Burdinmendi bide berdea seinaleztatzeko proiektua ezartzeko lan zehatzetarako. Proiektu horren akutazio zehatzak seigarren azalpenean banakatu dira.</p>	<p>IX.- Que en este marco estratégico compartido para el fomento de la movilidad sostenible se procede vehicular vía convenio una subvención para los concretos trabajos consistentes en la implantación del Proyecto de señalización de la vía verde Montes de Hierro -Burdinmendi, cuyas concretas actuaciones han sido desglosadas en el expositivo sexto.</p>
<p>X.- Erakusketan zehaztutako helburuak betetze aldera, dirulaguntza hitzarmen hau sinatzea,</p>	<p>X.- En cumplimiento de los objetivos definidos en la Exposición, suscribir el presente Convenio</p>

<p>Burdin Mendietako bide berdea – Burdinmendi – seinaleztatzeko lan zehatzetarako, Muskizko udalerrinari dagokion tarteari dagokionez, betiere honako klausula hauen arabera:</p>	<p>Subvencional para los concretos trabajos de señalización de la vía verde Montes de Hierro - Burdinmendi en lo que respecta al tramo correspondiente al municipio de Muskiz, todo ello conforme a las siguientes:</p>
<p style="text-align: center;">KLAUSULAK</p>	<p style="text-align: center;">CLAUSULAS</p>
<p>LEHENENGOA. - XEDEA</p> <p>Hitzarmen honen xedea da mugikortasun jasangarria sustatzea, erabiltzailearentzat irisgarriagoa izan dadin. Horretarako, Burdinmendi Bide Berdean sarrerak, sarbideak eta tarteko mugarriak seinaleztatzeko proiektua ezartzeko eta meatzaritzako industria-ondareari buruzko informazio-panelak diseinatzeko lan zehatzak, Muskiz-ko udalerraren barruko 6,491 Km -ko tartean diruz lagunduko dira. Horrenbeste, bere zabalkuntza publikoa sustatuko da.</p>	<p>PRIMERA. - OBJETO</p> <p>El presente convenio tiene por objeto fomentar la movilidad sostenible haciéndola más accesible a la persona usuaria para lo cual se procede a subvencionar los concretos trabajos para la implantación del proyecto de señalización de entradas, accesos e hitos intermedios y del diseño de paneles informativos sobre patrimonio industrial minero en Vía Verde Montes de Hierro- Burdinmendi en el tramo que discurre a lo largo de los 6,491 Km. dentro del municipio de Muskiz así como su difusión pública.</p>
<p>BIGARRENA. -KOPURUA ETA AURREKONTUETAKO KREDITOA</p> <p>Bizkaiko Foru Aldundiak 16.175,82 euroko ekarpen ekonomikoa egin du Muskizko Udalari dagozkion lan horiek egiteko. Ekarpen hori entrega bakar batean egingo da, eta ordainketa hitzarmen hau sinatzeko ekitaldian gauzatuko da. Horretarako, partida honetan dago gaitutako kreditua: 0605 zentro kudeatzailea, 441122 programa, 73299 ekonomikoa, 2021/0036 proiektua.</p>	<p>SEGUNDA. - CUANTIA Y CREDITO PRESUPUESTARIO</p> <p>La aportación económica por parte de la Diputación Foral de Bizkaia para la ejecución de los trabajos mencionados correspondiente al Ayuntamiento de Muskiz es de 16.175,82 €, en una única entrega cuyo pago se activa en el acto de firma del presente Convenio. Para ello, existe crédito habilitado en la siguiente partida: centro gestor 0605, programa 441122, económico 73299, proyecto 2021/0036.</p>

<p>Bizkaiko Foru Aldundiak emandako zenbatekoa nahikotzat jotzen da inbertsioaren gastuei aurre egiteko, eta ezin izango da, inola ere, zenbateko gehigarririk erreklamatu.</p> <p>Ekarpen ekonomiko hori dirulaguntza da, beraz, egindako gastuaren justifikazioa bat etorri beharko da Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan eta Foru Arau hori garatzen duen eta Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuan ezarritakoarekin.</p> <p>Emango duen dirulaguntza itzultzeko arrazoiak arautzen dituen klausulak esaten duenari kalterik egin gabe, justifikatu gabeko zenbatekoak itzuli egin beharko dira, aipatutako araudiaren arabera.</p>	<p>La cantidad aportada por parte de la Diputación Foral de Bizkaia se considera suficiente para hacer frente a los gastos de la inversión, y en ningún caso podrá ser reclamada cantidad adicional alguna.</p> <p>Esta aportación económica tiene carácter de subvención, por tanto, la justificación del gasto realizado deberá adecuarse a lo exigido en la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración, y por el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de dicha Norma Foral.</p> <p>Sin perjuicio de lo dispuesto en la cláusula que regule las causas para los reintegros, procederá el reintegro de las cantidades no justificadas de acuerdo con la mencionada regulación.</p>
<p>HIRUGARRENA. - HELBURU BERBERERAKO BESTELAKO DIRULAGUNTZA, LAGUNTZA EDO DIRU-SARRERAREKIN BATERAEZINTASUNA</p> <p>Hitzarmen honen bidez emandako dirulaguntza bateraezina da helburu bera duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, baldin eta administrazio edo erakunde publiko edo pribatuetatik, nazioaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik badatoz.</p>	<p>TERCERA. - INCOMPATIBILIDAD CON OTRAS SUBVENCIONES, AYUDAS O RECURSOS PARA LA MISMA FINALIDAD</p> <p>La subvención otorgada a través de este convenio es incompatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos con la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o Entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.</p>

<p>LAUGARRENA.- ONURADUNEN BETEKIZUNAK</p> <p>Muskizko Udalak adierazten du ez duela inolako debekurik onuradun izateko, 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan aurreikusitako moduan.</p>	<p>CUARTA. - REQUISITOS DE LA PERSONA BENEFICIARIA</p> <p>El Ayuntamiento de Muskiz declara no estar incurso en prohibición alguna para acceder a la condición de persona beneficiaria, en los términos previstos en el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005.</p>
<p>BOSGARRENA. - ZERGA-BETEBEHARRAK, GIZARTE SEGURANTZAREKIKOAK ETA DIRULAGUNTZAK ITZULTZEAREKIKOAK.</p> <p>Muskizko Udalak konpromisoa hartzen du zerga_betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izateko, dirulaguntzak itzultzeko prozeduraren ebazpen bidez sortutako zorrei dagozkienak barne, 34/2010 Foru Dekretuaren 16. artikulua aurreikusten duen bezala.</p>	<p>QUINTA. - OBLIGACIONES DE CARÁCTER TRIBUTARIO, CON LA SEGURIDAD SOCIAL Y POR REINTEGRO DE SUBVENCIONES.</p> <p>El Ayuntamiento de Muskiz se compromete a estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la seguridad social, incluidas las correspondientes a deudas generadas por resolución de procedimiento de reintegro de subvenciones, tal y como prevé el artículo 16 del Decreto Foral 34/2010.</p>
<p>SEIGARRENA. - DIRUZLAGUNDUA DEN JARDUERAREN EGIKARATZEKO EPEMUGA.</p> <p>Dirulaguntzaren xede den jarduera gauzatzeko epea urtebetekoa da, hitzarmen hau sinatzen denetik kontatzen hasita.</p> <p>Nolanahi ere, dirulaguntzen hitzarmen honen xede diren lanak diruz lagundutako gastuen justifikazioa aurkeztu aurretik amaitu beharko dira. Justifikazio hori Mugikortasun Jasangarriaren Ataleko langileek egiaztatuko dute.</p> <p>Kontrol honen guzti honen emaitza esandako Mugikortasun Atalak egin beharreko akta batean</p>	<p>SEXTA - PLAZO DE EJECUCION DE LA ACTIVIDAD OBJETO DE SUBVENCION</p> <p>El plazo para la ejecución de la actividad objeto de la subvención es de un año contado desde la firma del presente convenio.</p> <p>En cualquier caso, la ejecución de los trabajos objeto del presente convenio subvencional deberá finalizar antes de presentar la justificación de los gastos subvencionados que será comprobado por personal de la Sección de Movilidad Sostenible.</p> <p>El resultado de toda esta fiscalización será</p>

<p>jasoko da, zeinetan antzeman diren gorabehera guztiak batuko diren, 34/2010 Foru Dekretuaren 69. artikularekin bat etorriz.</p>	<p>recogido en un acta de comprobación a realizar por la Sección de Movilidad, donde se reflejarán en su caso todas las incidencias detectadas, tal y como dispone el artículo 69 del Decreto Foral 34/2010.</p>
<p>ZAZPIGARRENA.- DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA MODUA</p> <p>Burdin Mendietako Bide Berdea – Burdinmendi – seinaleztatzeko proiektua ezartzearekin lotuta diruz lagundu beharreko kontzeptuak gauzatu izanaren azken justifikazioa Mugikortasun Atalean aurkeztu beharko da hiru hilabeteko epean, hitzarmen honetan aurreikusitako jarduerak gauzatzeko epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita.</p> <p>Diruz lagundutako lan zehatzen justifikazioa Mugikortasun Atalean aurkeztu beharko da, egindako gastua justifikatzeko kontu sinplifikatu baten bidez.</p>	<p>SÉPTIMA.- PLAZO Y FORMA DE JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN</p> <p>La justificación final de la realización de los conceptos a subvencionar relacionados con la implantación del Proyecto de señalización de la Vía Verde Montes de Hierro -Burdinmendi, deberá estar presentada ante la Sección de Movilidad en un plazo de tres meses a partir de la fecha fin de plazo de ejecución de las actividades previstas en este convenio.</p> <p>La justificación de los concretos trabajos subvencionados deberá estar presentada ante la Sección de Movilidad mediante una cuenta justificativa simplificada del gasto realizado.</p>
<p>ZORTZIGARRENA. - DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK</p> <p>Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan aurreikusitako ondorioetarako, diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta dirulaguntzen oinarri arautzaileek ezarritako epean egiten direnak.</p>	<p>OCTAVA - GASTOS SUBVENCIONABLES</p> <p>Se consideran gastos subvencionables, a los efectos previstos en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido por las diferentes cláusulas del presente convenio subvencional.</p>

<p>BEDERATZIGARRENA. - AZPIKONTRATAZIORAKO BALDINTZAK</p> <p>Ez da azpikontratazioa baztertzen, eta ez da haren zenbatekoa mugatzen diruz lagundutako lanak eta jarduerak gauzatzeko. Hala ere, azpikontratazio horri 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaio.</p>	<p>NOVENA. - CONDICIONES DE SUBCONTRATACION</p> <p>No se excluye la subcontratación ni se limita su cuantía para la ejecución de los trabajos y actividad objeto de subvención. No obstante, a dicha subcontratación le será de aplicación lo dispuesto por el artículo 27 de la Norma Foral 5/2005.</p>
<p>HAMARGARRENA. - DIRULAGUNTZA ZABALTZEKO NEURRIAK</p> <p>Seigarren klausulan deskribatutako seinaleetan eta informazio-paneletan Bizkaiko Foru Aldundiaren irudi instituzionala jaso beharko da</p>	<p>DÉCIMA. - MEDIDAS DE DIFUSIÓN DE LA SUBVENCIÓN</p> <p>Tanto en las señales como en los paneles informativos descritos en la cláusula sexta deberá ir incluida la imagen institucional de la Diputación Foral de Bizkaia.</p>
<p>HAMAIKAGARRENA. - EZ-BETETZEAK ETA ITZULKETAK</p> <p>Honako hauek izango dira itzulketa-kausak, eta 5/2005 Foru Arauaren 37. eta 38. artikuluek eta 34/2010 Foru Dekretuaren 77. artikulutik 79.era bitartekoek arautuko dituzte:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan aurreikusitako dirulaguntza itzultzeko arrazoi diren ez-betetzeak. 2. 5/2005 Foru Arauaren 18. artikuluko 3. idatz-zatian jasotako kasuarekin bat etorritz, diruz lagundutako jardueraren kostuaren gainean 	<p>DECIMOPRIMERA. - INCUMPLIMIENTO Y REINTEGROS</p> <p>Serán causa de reintegro y se regirán por los artículos 37 y 38 de la Norma Foral 5/2005 y artículos 77 a 79 del Decreto Foral 34/2010, las siguientes:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Los incumplimientos que constituyen causa de reintegro de la subvención previstos en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005. 2. De conformidad con el supuesto contemplado en el apartado 3 del artículo 18 de la Norma Foral 5/2005, procederá el reintegro del exceso obtenido sobre el coste

<p>lortutako soberakina itzuli beharko da, bai eta dagokion berandutze-interesa ere.</p>	<p>de la actividad subvencionada, así como la exigencia del interés de demora correspondiente.</p>
<p>HAMABIGARRENA. - BORONDATEZKO ITZULKETA.</p> <p>Aurreko klausulan aurreikusitako berariazko kasuak alde batera utzi gabe, onuradunak bere ekimenez, dirulaguntza osoa edo haren zati bat borondatez itzuli ahal izango du Horretarako, aldezturik ordainketa-gutuna eskatu beharko da.</p>	<p>DECIMOSEGUNDA. - REINTEGRO VOLUNTARIO.</p> <p>Sin perjuicio de los supuestos específicos previstos en la cláusula precedente, la persona beneficiaria podrá proceder al reintegro voluntario de la subvención, de todo o parte de la misma, a iniciativa propia. Para ello, requerirá la previa solicitud de la correspondiente carta de pago.</p>
<p>HAMAHIRUGARRENA. - BERMEEN ARAUBIDEA</p> <p>Muskizko Udalari ez zaio bermerik eskatuko, ez baita ikusten hitzarmen honen arabera bere gain hartutako betebeharrak ez betetzeko arriskurik</p> <p>Hori guztia, dena dela, eta hala badagokio, eta balizko ez-betetzeen aurrean, erantzukizunak eskatzeko, itzultzeko exijitzeko eta hitzarmena ez betetzeagatik erresoluzioa ebatzeko administrazio-prozeduraren bidez ekin ahal izango zaio.</p>	<p>DECIMOTERCERA. - REGIMEN DE GARANTÍAS</p> <p>No será exigible la prestación de garantía por parte del Ayuntamiento de Muskiz, por cuanto no se advierte riesgo de que incumpla las obligaciones asumidas en virtud de este convenio.</p> <p>Todo ello sin perjuicio de que, llegado el caso, y ante incumplimiento, se proceda a través del correspondiente procedimiento administrativo a la exigencia de responsabilidades, exigencia de reintegro y extinción por incumplimiento del convenio.</p>

<p>HAMALAU GARRENA. - DIRULAGUNTZAREN FINANTZA-KONTROLA</p> <p>Muskizko Udalak eta dirulaguntzaren xedearekin zerikusia duten hirugarren pertsonak laguntza emateko betebeharrak ezartzen da, 5/2005 Foru Arauaren 41. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.</p>	<p>DECIMOCUARTA - CONTROL FINANCIERO DE LA SUBVENCION</p> <p>Se establece la obligación de colaboración tanto del Ayuntamiento de Muskiz como de las terceras personas relacionadas con el objeto de la subvención, en los términos previstos por el artículo 41 de la Norma Foral 5/2005.</p>
<p>HAMABOST GARRENA. - ALDERDIEN KONPROMISOAK</p> <p>Bizkaiko Foru Aldundiak, Muskizko Udalarekin koordinatuta eta harekin bat etorritik, Burdinmendi Bide Berdea seinalatzeko lanak finantzatzeko dituen, bigarren klausulan xedatutakoaren arabera.</p>	<p>DECIMOQUINTA. - COMPROMISOS DE LAS PARTES</p> <p>La Diputación Foral de Bizkaia, en coordinación y de acuerdo con el Ayuntamiento de Muskiz,, de conformidad con lo dispuesto en la cláusula segunda, financiará los trabajos de señalización de la Vía Verde Montes de Hierro -Burdinmendi.</p>
<p>HAMASEI GARRENA. - HITZARMENA ALDATZEA</p>	<p>DECIMOSEXTA. - MODIFICACIÓN DEL CONVENIO</p>
<p>1.- Hitzarmen hau aldatzeko, bi alderdiek ados jarri beharko dute eta dagokion espedienteak izapidetu.</p>	<p>1.- La modificación del presente convenio requerirá el acuerdo de ambas partes y la previa tramitación del correspondiente expediente.</p>
<p>2.- Espediente horretan, nahitaez, txosten tekniko justifikatzaile bat egin beharko da, aldaketaren beharra eta egokitasuna aztertzeko eta 40/2015 Legean edo hura ordeztzen duen arauan</p>	<p>2.- En el mencionado expediente, necesariamente deberá emitirse un informe técnico justificativo en el que se analice la necesidad y oportunidad de la modificación y el cumplimiento de lo previsto</p>

aurreikusitakoa betetzeko.	en la Ley 40/2015 o norma que la sustituya.
3.- Eragindako administrazio bakoitzeko organo eskudunek onartzen dutenean amaituko da aldaketa-prozedura.	3.- El procedimiento de modificación finalizará con su aprobación por los órganos competentes de cada una de las Administraciones concernidas.
HAMAZAZPIGARRENA. - HITZARMENA SUNTSIARAZTEA	DECIMOSÉPTIMA. - RESOLUCIÓN DEL CONVENIO
<p>1.- Hitzarmen hau betearazten edo suntsiarazten denean iraungiko da.</p> <p>2.- Hauek dira suntsiarazteko arrazoiak:</p> <p>a) Indarraldiaren gehieneko epea igarotzea.</p> <p>b) Bi alderdiek aho batez hartutako erabakia.</p> <p>c) Alderdietako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.</p> <p>d) Zerbitzua ematen ez hastea.</p> <p>e) Legeetan aurreikusitako beste edozein arrazoi.</p> <p>3.- Hitzarmena suntsiarazten bada, aldeek beren konpromisoak bete beharko dituzte suntsiarazpena deklaratzeko den egunera arte, eta, ondoren, itzulketarik egin behar den aztertuko da.</p>	<p>1.- El presente Convenio se extinguirá con su resolución o cumplimiento.</p> <p>2.- Son causas de resolución:</p> <p>a) El transcurso del plazo máximo de su vigencia.</p> <p>b) El acuerdo unánime de las dos partes.</p> <p>c) El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por alguna de las partes.</p> <p>d) La no iniciación de la prestación del servicio.</p> <p>e) Cualquier otra causa prevista en las leyes.</p> <p>3.- En caso de resolución del convenio, las partes quedan obligadas al cumplimiento de sus respectivos compromisos hasta la fecha en que aquélla se declare, tras lo cual se analizará si procede reintegro alguno.</p>
HAMAZORTZIGARRENA - ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK	DECIMOCTAVA. - INFRACCIONES Y SANCIONES

<p>Hitzarmen honi aplikatu beharreko araudian aurreikusitako zehapen-araubidea izango da aplikagarria. Zehazki, Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan ezarritakoa.</p>	<p>Será de aplicación el régimen sancionador previsto en la normativa que resulta de aplicación al presente convenio. Concretamente, el previsto en el título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.</p>
<p>HEMERETZIGARRENA. - JARRAITU, ZAINDU ETA KONTROLATZEKO MEKANISMOAK</p>	<p>DECIMONOVENA. - MECANISMOS DE SEGUIMIENTO, VIGILANCIA Y CONTROL</p>
<p>Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Sailak egin beharreko egiaztatzeko aktari kalterik egin gabe (34/2010 Foru Dekretuaren 69.artikuluak arautzen duenaren arabera), hitzarmenean araututako eginbeharrak ondo betearazten diren jarraipena egiteko, batzorde tekniko bat eratuko da, alde bakoitzeko ordezkari batek eta ordezkari batek osatua, eta aldeetako edozeinek eskatuta bilduko da.</p>	<p>Sin perjuicio del acta de comprobación que, de conformidad con el artículo 69 del Decreto Foral 34/2010, ha de levantar la sección de Movilidad sostenible, con el fin de realizar un seguimiento del correcto desarrollo de los compromisos regulados en el presente convenio se constituye una comisión técnica integrada por una persona representante y otra suplente de cada una de las partes que se reunirá a instancia de cualquiera de ellas.</p>
<p>HOGEGARRENA. - EZTABAIDAK ETA JURISDIKZIO EREMUA</p>	<p>VIGÉSIMA. - CONTROVERSIAS Y ÁMBITO JURISIDICCIONAL</p>
<p>1.- Alderdiek ebatziko dituzte hitzarmen honen interpretazioari, aldaketari, ebazpenari eta ondorioei buruz sor daitezkeen eztabaida guztiak.</p> <p>2.- Alderdietako batek uste badu besteak ez dituela bere betebeharrak bete, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan demandatu ahal izango du bestea. Errekurtsoa</p>	<p>1.- Las controversias que pudieran surgir sobre la interpretación, modificación, resolución y efectos del presente Convenio serán dirimidas entre las partes.</p> <p>2.- En el caso de que una de las partes considere que la otra ha incumplido las obligaciones que le incumben, podrá demandar a la otra ante la Jurisdicción Contencioso-</p>

<p>jarri aurretik, alderdi batek besteari eskatuko dio 15 eguneko epean bete ditzala bere ustez bete ez dituen betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimenduan adierazitako epea igarotakoan oraindik ez badira bete, alderdi eskatzaileak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango du zuzenean. Errekurtso horretan, alderdi demandatzaileak hitzarmena betetzea edo suntsiaraztea eskatu ahal izango du, eta, osagarri gisa, eragindako gaitz-kalteengatik kalte-ordaina.</p>	<p>Administrativa. Con carácter previo al recurso, cualquiera de las partes requerirá a la otra para que en el plazo de 15 días cumpla con las obligaciones o compromisos que considere incumplidos. Si transcurrido el plazo indicado en el requerimiento persistiera el incumplimiento, la parte requirente podrá interponer directamente recurso contencioso-administrativo. En dicho recurso, la parte demandante podrá pretender el cumplimiento del convenio o su resolución y, complementariamente, una indemnización por los daños causados.</p>
<p>HOGEITA BATGARRENA.- ARAUBIDE JURIDIKO APLIKAGARRIA</p>	<p>VIGÉSIMOPRIMERA. - REGIMEN JURIDICO APLICABLE</p>
<p>Dirulaguntzen hitzarmen honi honako hauek aplikatuko zaizkio:</p> <ul style="list-style-type: none"> a) 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena. b) 34/2010 Foru Dekretua, martxoaren 23koa, dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Araua garatzen duen Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duena. c) Hitzarmena bera. d) Administrazio-zuzenbideko gainerako arauak, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira. 	<p>Serán de aplicación al presente convenio subvencional:</p> <ul style="list-style-type: none"> a) La Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral. b) El Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005 de Subvenciones. c) El propio convenio. d) Las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, se aplicarán las normas de derecho privado.

<p>HOGEITA BIGARRENA.- DATU PERTSONALEN BABESA</p>	<p>VIGÉSIMOSEGUNDA. - PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL</p>
<p>Sinatzaileek honako hauek betetzeko konpromisoa hartzen dute: alde batetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamendua dela-eta pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; bestetik, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa; azkenik, datu pertsonalak babesteari arloan indarrean dagoen gainerako araudia.</p>	<p>Las partes firmantes se comprometen a cumplir con lo dispuesto en el Reglamento UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos, y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, así como en el resto de la normativa vigente en materia de protección de datos de carácter personal.</p>
<p>HOGEITA HIRUGARRENA.- HIZKUNTZA-ARAUBIDEA</p> <p>Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzko 10/1982 Legearen 10. artikuluan xedatutako aplikatuko da, instalatutako seinaleak ele bitan idatzita egon behar izateari dagokionez, betiere nazioarteko arauak eta erabiltzaileen ulergarritasun- eta segurtasun-eskakizunak errespetatuz.</p>	<p>VIGÉSIMOTERCERA.- RÉGIMEN LINGÜÍSTICO</p> <p>Será de aplicación lo dispuesto en el artículo 10 de la Ley 10/1982 básica de normalización de uso del euskera, en cuanto a la obligatoriedad de que las señales instaladas deban estar redactadas en forma bilingüe, respetando en todo caso las normas internacionales y las exigencias de inteligibilidad y seguridad de las personas usuarias.</p>
<p>HOGEITA LAUGARRENA.- GENERO- IKUSPEGIA</p> <p>Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera. alderdi sinatzaileek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko konpromisoa hartzen</p>	<p>VIGÉSIMOCUARTA.- PERSPECTIVA DE GÉNERO</p> <p>De acuerdo con la normativa vigente en materia de igualdad de mujeres y hombres, las partes firmantes se comprometen a promover la igualdad de mujeres y hombres en todas aquellas</p>

<p>dute hitzarmen hau behar bezala betetzeko egin behar diren jarduera guztietan.</p>	<p>actuaciones que se precisen desarrollar para el adecuado cumplimiento del presente convenio.</p>
<p>HOGEITA BOSTGARRENA.- INDARREAN SARTZEA</p> <p>Hitzarmen hau formalizatzen den unean jarriko da indarrean, eta hitzarmenaren ondoriozko betebeharrak betetzen direla egiaztatu arte egongo da indarrean, hitzarmen honen seigarren klausulan xedatutakoarekin bat etorritz.</p>	<p>VIGÉSIMOQUINTA.- ENTRADA EN VIGOR</p> <p>Este convenio entrará en vigor en el momento de su formalización y su vigencia se extenderá hasta la verificación del cumplimiento de las obligaciones derivadas del mismo, de conformidad con lo dispuesto en la cláusula sexta del presente convenio</p>
<p>Eta, ezarritakoarekin bat etorritz, bertaratuek dokumentu hau sinatzen dute.</p>	<p>Y, de conformidad con lo establecido, firman las personas comparecientes el presente documento</p>